



## TREBAKUNTZA 2016-10: ORDUAK

Udal idazki askotan orduak oker idatzita ikusi ditugu. Orduak behar bezala idazten hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

**OHARRA:** Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* *Bilera martxoaren 23an izango da, 9,00etan.*
2. \* *Batzarra ordubatetan hasiko da, eta ordubietan bukatu.*
3. \* *Ekitaldia arratsaldeko seiretan hasiko da.*
4. \* *16:30etan hasi zen aurkezpena, eta 18:15etan bukatu.*
5. \* *Udaletxearen ordutegia: 9.00 – 14.00.*
6. \* *Hamaikak laurden gutxietan egingo dugu batzarra.*
7. \* *Hitzaldia luze samarra izan zen, zazpietaraino luzatu zen.*

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Orduak zenbakiz jartzean, erabili **lau zifra eta bi puntuak**.

Ad. Bilera martxoaren 23an izango da, **09:00etan**.

2. Forma zuzenak hauek dira: **ordu batean eta ordu bietan**.

Ad. Batzarra **ordu batean** hasiko da, eta **ordu bietan** bukatu.

3. Oro har, orduak deklinatzean, **-tan edo -retan bukaerak ez dira zuzenak**.

Ad. Ekitaldia arratsaldeko **seietan** hasiko da (eta ez *\*seiretan* edo *\*seitan*).

**ONDO DAUDENAK:** **hiruretan, lauretan, bostetan, seietan, zazpitan, zortzietan, bederatzietan...**

**GAIZKI DAUDENAK:** *\*seiretan/seitan, \*zazpiretan/zazpitan, \*zortziretan/zortzitan...*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

4. Orduak zenbakiz ematean, **minutuak deklinatu** behar ditugu.

Ad. **16:30ean** (=hogeita hamarrean) hasi zen aurkezpena, eta **18:15ean** (eta hamabostean) bukatu.

5. Ordu tarteak idazteko, erabili **lau zifra, bi puntuak eta marratxoa tartean (espaziorik gabe)**.

Ad. Udaletxearen ordutegia: **09:00-14:00**.

6. Orduak letraz idaztean, **ondo erreparatu deklinabideari**.

Ad. Hamaikak laurden **gutxi(ago)tan** egingo dugu batzarra.

**ONDO DAUDENAK:** *hamar eta erdietan, hamaikak laurden gutxi(ago)tan...*

**GAIZKI DAUDENAK:** *\*hamar eta erditan, \*hamaikak laurden gutxietan...*

7. Denboraz ari garenean, **ez da noraino erabili behar, noiz arte baizik**.

Ad. Hitzaldia luze samarra izan zen, **zazpiak arte** luzatu zen.

**OHARRA:** arauok idatziari bakarrik dagozkio.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99